



BEZERO ERLAZIOA

Lehen aipatu ditugun kanalak kontutan hartuta, gure harremana bezeroekin desberdina izango da kanal batean edo bestean. Ekintzak hainbat adinetako pertsonentzat dira. Bide asko jarri ditugu gure arteko komunikazioa egokia izateko eta pertsona guztientzat bideratua egoteko.

1. GMAILA



Lehen esan dugun moduan, Gmaila bezero helduei bideratuta dago. Bertan, sortzen zaizkien zalantzak argitzen ditugu. Gainera, bazkide guztiei ekintza berrien inguruko informazioa bidaltzen diegu. Bereziki, sare sozialak erabiltzen ez dituztenei zuzenduta dago. **Gmaileko harremana estua da**, izan ere, pertsonalki erantzuten ditugu, ekintzetan zehar beraiekin egoten baikara, eta horrek berezeroarekiko harreman estu bat sortzen laguntzen du.

2. WEB ORRIA.

Lehen aipatu dugun moduan, web orrian enpresaren xehetasun guztiak azalduko dira. Bezeroek beraien proposamenak jartzeko aukera dute, eta horrek bezeroak enpresaren “parte” bilakatzen ditu. Ondorioz, web orriak ez du harreman zuzena izango.



3. INSTAGRAM



Bezero kanalean jarri dugun bezala, instagramaren bidez ekintzan bertan ateratako argazkiak partekatuko ditugu. Bezeroek, gure ekintzen inguruko informazioa bertan bilatzeko aukera izango dute. Beraz, ez dugu bezeroekin harreman zuzenik izango.



4. TIK TOK

Gaur egun, gazte askok erabiltzen duten aplikazioa da. Hori dela eta, aplikazio honen bidez bideo interesgarriak publikatuz, nerabe asko animatu ditzakegu ekintza askotara, udarako udalekuetara barne. Hala ere, harremana ez da zuzena izango, sare sozial honen bidez ez baitugu elkarriketarik mantenduko gure artean.



5. WHATSAPP



Beste bide garrantzitsu bat WhatsApp dela iruditzen zaigu, bertan ekintza ezberdineko taldeak sortuko ditugu eta beste aplikazioetan bezala, informazio zuzena bidaliko dugu. Gainera, norbaitek arazo edo zalantza bat edukiz gero, lasai hitz egin dezakegu elkarrekin. Beraz, harremana estua izango da, gure artean komunikazioa zuzena eta pertsonala bermatuko dugulako.

6. TELEFONOA

Gurekin harremanetan jartzeko azken gunea telefonoz izango da. Norbaitek zalantza bat izanez gero, edozer gauza lasai galdetu dezake. Normalean, helduak izango dira deitzen dutenak, gehientsuenek sare sozialak ez dituztelako eta errazagoa egiten zaielako dei baten bidez informatzea. Harremana estua izango da, elkarriketak elkarbanatuko ditugulako.



7. AURREZ AURREKO ARRETA



Azkenik, **aurrez aurreko arreta izango da gure komunikabide garrantzitsuenetarikoa**. Bezeroek, gurekin zuzenean elkarreragiteko aukera izango dute, eta horrela zalantzak argitu, informazioa eskatu edo ekintzetan parte hartzeko orientazioa jaso dezakete. Harremana oso estua eta pertsonala izango da, denbora eta arreta eskeintzen baitiegu gure bezeroei, hori baita gure zerbitzuen oinarri.